

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NGKIk 11 proiektu hautatu ditu Arte Plastikoen modalitatean eta bost Ikusentzunezkoetan, 2018ko Arte Gazte Topaketan barnean

Saritutakoak urriaren 19an emango dira ezagutzera publikoari irekitako prozesu baten ondoren, eta hautaturiko lanak Uharte Zentroan izango dira ikusgai

Asteartea, 2018.eko abuztuak 28

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak, Gazteriako Zuzendariordetzaren bitartez, Arte Plastikoen modalitatean aurkeztutako 17 projektutatik 11 hautatu ditu eta Ikusentzunezkoen modalitateko beste bost, 2018ko Arte Gazte Topaketak programaren barnean.

Irailaren 28az geroztik, hautaturiko obrak Uharteko Arte Garaikideko Zentroan

jarriko dira ikusgai, eta bertan, zenbait eztabaida, tailer eta tutorizazio saio ere egingen dira epaimahaia osatzen duten pertsonen partaidetzaz. Jarduera artistikoa, artea ekoizteko esparruak, ekoizpen-prozesuak eta arteari buruzko ikerketa bistaratu eta horiei buruzko hausnarketa bultzatzea xede duen prozesu honen ondoren, urriaren 19an saritutako lanak emango dira ezagutzera Zentral aretoan antolatuko den topaketa baten bitartez.

Arte Plastikoen arloan, honako hauek hautatu dira: Carlota Vidán eta Víctor Manzanal (modelaketatik abiatutako lan eskultorikoak), Amaia Molinet (argazkia), Iosune Sarasate (instalazio mugikorra), Roberto Freire (hondakinaren kontzeptuari buruzko ikerketa), Mirari Echavarri eta Jara Narvalaz (bideoa), Paula Carralero eta Katixa Goldaracena (pintura), Karmele Oteros (grabatua) eta Aizpea Atxa (marrazkia). Hautaturiko lanak gorputza, identitatea, espazioa, generoa eta hondakina bezalako gaien inguruko hausnarketei eta ikerketa artistikoei atxikitakoak dira.

Aimar Arriola komisario, editore eta ikertzailea, Alexandra Baurès komisario eta kultura-kudeatzaile independentea eta Uharte Zentroko zuzendaritza kide izan dituen epaimahaiak aurkeztutako proposamenen kalitate-maila handia azpimarratu du.

Ikusentzunezko bost lan



Arte Plastikoen modalitatean aukeratutako 11 lanetako bat

Ikusentzunezkoen modalitatean, hauexek izan dira epaimahaiko kideak: Punto de Vista jaialdiko zuzendari-ohi Oskar Alegria, Zinema Dokumentalari buruzko diplomadun eta ikertzaile Arantza Santesteban eta Uharte Zentroko zuzendaritza. Epaimahai honek bost proposamen hautatu eta horien eklektizismoa nabarmendu du. Hauexek dira hautaturiko proposamenak: Maddi Barberren dokumental bat, Diego Escribanoren iragarki bat, Naiara Oliteren eta beste 8 partaideren epokako musikal bat, Unai Rikarteren fikziozko film labur bat eta Julia Vázquezen fashion film bat.

Hautaturiko lanen egileek epaimahaiaren eta gainerako pertsona aukeratuen aurrean defendatuko dituzte beren lanak. Halaber, arte garaikideko kontzeptuei buruzko erlazio-topaketak egingo dira. Horietan, hautaturiko artistek elkarren artean partekatuko dituzte beraien interesak, beharrak eta kezak, publikoari irekitako jardunaldien bitartez.

Era berean, hautaturiko obren erakusketa egingo da Uharte Zentroan, eta epaimahaiko kideek tailerrak, tutorizazioak eta eztabaidak eskainiko dituzte. Jarduera hauek artistendako nahiz oro har arte munduarekin lotuta dauden pertsonendako irekita egonen dira.

Azkenik, urriaren 19an, saridunak emango dira ezagutzera Zentral aretoan antolatuko den topaketa baten bidez. Hauexek dira sariak: 2.500 euroko lehen saria, 1.500 euroko bigarren saria eta 1.000 euroko hirugarren saria.

Arte Plastikoen eta Ikusentzunezkoen tailerren agenda:

- Ostirala, irailak 28, 18:30ean:

Arte Plastikoen modalitatean hautaturiko lanen erakusketaren inaugurazioa.

- Larunbata, irailak 29, 10:00etatik 14:00etara:

Alex Baurèsen "Batu, elkartu, solasean jarri" izenburuko tailerra.

Zer gertatzen da ideiak, objektuak eta/edo hitzak bata besteen ondoan jartzen ditugunean? Zer gertatzen da tarteko gunean? Nolako galderak edo esanahiak agertzen dira eragiketa honen bitartez? Taile praktiko honetan, prozesu osoaz jabetuko dira. Horretarako, partaide bakoitzak objektu edo irudi bat eta testu zati bat ekarri beharko ditu. Horixe izanen da ariketaren abiapuntua.

18:00etan, Ikusentzunezkoen modalitatean hautatu diren proiektuak ikusteko saioa egingen da epaimahaiaren aurrean eta publiko orokorrari irekita.

- Igandea, irailak 30, 11:00etatik 14:30etara:

Oskar Alegriaren tailerra.

- Ostirala, urriak 5, 17:00etatik 20:00etara:

Arantza Santestebanen tailerra: "Generoari buruzko estereotipoak deseraikitzen zinemari". Zinemaren historiako hainbat film ikusi eta gizon nahiz emakumeen rolak aztertuko dira.

- Larunbata, urriak 6, 10:00etatik 14:00etara:

Obra eta proiektuen aurkezpena epaimahaiaren aurrean (10 x 20m).

17:30etatik 19:30etara, Aimar Arriolarekiko topaketa: "Hastapenak"

Nola hasten da zerbait? Nondik hasi behar da? Honelako galderak egitea nahitaezkoa da proiektu artistiko baten kontzeptualizazio edo ideazioan. Galdera errazak direla irudi du, baina konplexutasun handia dute, eta batzuek tranpa ere bai: hastapenei buruz galdetzeak gauzek hasiera eta bukaera dutela onartzea dakar. Zerbait has dezakegu hasierako lekutik kanpo? Topaketa informal honetan, gonbita luzatuko zaiei parte-hartzaileei, nor bere bidea jorratzeari nola ekiten dion jabe daitezen.

Igandea, urriak 7

Tutorizazio indibidualak Aimar Arriola, Alex Baurès, Oskar Alegria eta Arantza Santestebanekiko topaketetan parte hartu dutenentzat.